

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asteazken honetatik, hilak 17, ordua eska daiteke 2012ko errenta-aitorpena egiteko

Iruña, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Tuterako bulego presentzialetan zergadunei arreta emango zaie apirilaren 19tik ekainaren 25a bitarte

Martes, 16 de abril de 2013

Asteazken honetan, apirilak 17, ordua eskatzeko eskaera-epea zabalduko da [2012ko errenta-aitorpena](#) egiteko horretarako prestatu diren sei bulegoetako edozeinetan: Iruña, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Tuteran; hura egitea eskatzen duten zergadunei arreta emango diete datorren ostiraletik, apirilak 19, ekainaren 25a bitarte. Ordua eska daiteke telefonoz 948 505 505 eta 948 505 506 zenbakietara dei eginez edo [Internetez](#) Nafarroako Gobernuaren webgunearen bidez: www.navarra.es.

Halaber, apirilaren 19an erakunde laguntzaileen bidezko aitortenak aurkezteko aldia zabalduko da, eta arretako 1.000 postu baino gehiago prestatu dituzte.

Gogoratu behar da ere, apirilaren 10etik [`bulego birtuala`](#) martxan dela eta, haren eskutik, zergadunek beren aitortpena egin dezaketela, edo Nafarroako Ogasunak egindako proposamena berraztertu eta aldatu. Gainera, webgune horretan 2012ko Errenta Kanpainari buruzko informazio osoa kontsulta daiteke (legeak nahiz datu praktikoak), eta Ogasunarekin izapide nagusiak egin, PIN zenbaki berri bat eskatzea, esate baterako.

Zerga Ogasunak egindako proposamenei dagokien ia [80 milioi euro](#)ko lehen ordainketa bat egin du jada eta [`itzultzea`](#) emaitza dutenak. Ogasunak era horretan 2012ko Errenta Kanpainan zehar zergadunei itzultzea aurreikusita zegoen kopuru guztiaren % 33,8 ordaindu du. Zehazki, 236 milioi euro itzuliko dela kalkulatu da, eta zenbateko horretatik % 91,3 kanpaina bera egin bitartean egingo da, uztaila baino lehen. Bestalde, "ordaindu beharreko" aitortenak 135 milioi eurora helduko direla aurreikusten da; beraz, kanpainaren azken saldoa zergadunen aldeko 101 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da.